



PRENTSARAKO OHARRA

18/10/18

Elena Unzueta Foru Diputatuak, EAE erasoten ari dan pinuen gaixotasunari aurre egiteko martxan jarriko diran neurriak zehaztu ditu

Elena Unzueta Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako diputatuak, Talde Mistoak eta Talde Popularrak eskatuta, Bizkaiko pinuek jasaten daberen gaixotasunari aurre egin ahal izateko Bizkaiko Foru Aldunditik aurreikusita dagozan neurriak zehaztu ditu. Neurri horreek, “konifero basoak berreskuratzeko euskal estrategia” izenekoaren barruan dagoz. Hiru Foru Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak diseinutako plan hori aldi berean gauzatu da hiru lurraldeetan.

Jarduketa plan horretan sakondu aurretik, Unzuetak “ez ohiko” egoerea dala argitu gura izan dau. Onddo bik –Banda gorriak eta Banda marroiak– batera erasoten dabe, baina ez dau “baso azaleraren mozketaren orokorra” eskatzen. Holan, Aldundiko arduradunak argitu dauenez, Bizkaian eragina “%25 ingurukoa” dan arren, eragin hori ez da homoginoa eta, hori dala eta, leku batzuek beste batzuek baino eragin handiagoa jasaten dabe.

“Konifero basoak berreskuratzeko euskal estrategiak” hiru jarduketa eremu hartzen ditu: hiru lurraldeetako baso azalera daukan gaixotasunaren eta eraginaren inguruko ezagutzea sortzea; gaixotasun horri aurre egiteko neurriak martxan jartea; eta sektorea berreskuratzea.

Ezagutzea sortzeari jagokonez, planak, beste batzuen artean, azalera eragin mailaren arabera sailkatzea eta gaixotasunaren portaera aztertzea aurreikusten dau; horrez gain, beste leku batzuetan arrakastea lortu daberen jardunbideak identifikatu dira. Foru Aldundiak taldeei jakinarazo deusenez, gaixotasunari aurre egin ahal izateko, une honetan “oxido kuprosoa erabilita aireko tratamendua emoteko baimen berezia tramitetan ari dira”; tramite hori “ezinbestekoa” da, eta EAeko pinuak erasoten ari diranen antzeko ondorei aurre egiteko emaitza onak emon dituan tratamendua martxan jarteko aukera emongo dau.

EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeek ez dabe ondo hartu azken neurri hori. Josean Elguezabal Podemos Bizkaia taldeko batzordekidea kritiko agertu da Bizkaiko Foru Aldundiaren jokabideagaz, bere eretziz, horrek “sutara gasolena botatea proponiduten” dauelako. Batzordekideak beste kolektibo batzuei entzuteko eta baso arloko politikak aldatzeko eskaria egin deutso Aldundiari, eta horretarako bere taldearen laguntza eskini dau.

Modu berean, Mikel Kormenzana EH Bilduko batzordekideak baso eredia aldatzearen garrantzia nabarmendu dau. Kormenzanak adierazo dauenez, bere taldeak Bizkaiko basoen kudeaketarako Foru Arau Proposamena aurkeztu dau.

Arturo Aldecoa Talde Mistoko bozeroaleak esan dauenez, oxido kuprosoa “nahiko tratamendu arina da, eta ondorio positiboa lortu daike”. Halanda be, bere esku-hartzean,

Aldecoak landatutako espezieak dibertsifiketea oso garrantzitsua dala azpimarratu dau “monokultiboetan izurriteak sua balira moduan zabaltzen diralako”.

Diputatuaren azalpenak entzun ostean, Eduardo Andrés batzordekide popularrak azpimarratu dau onddo horiek “aspalditik ari dirala Bizkaiko pinuetan eragina izaten”. “Prebentzinoaren inguruan lehenago egin behar zan berba”, gehitu dau.

Isabel Cadaval batzordekide sozialistaren eretxiz, gai honen inguruko puntu garrantzitsuenetakoa ganerako erakundeakaz gauzatzen ari dan koordinazioa da. “Danok arduratzen gaituen” egoerea dala kontuan izanda be, “ardura horrek ezin gaituela alarmismora eta larregizko dimentsinora eroan” gogoratuazo dau Euzko Abertzaleak taldeko batzordekideak.

BASO ARLOKO LAGUNTZAK

Saio berean, EH Bildu taldeak basoen kontserbazinarako, hobekuntzarako eta garapenerako sustapen neurrien araubiderako Dekretutik nekazaritza eta basogintza arloetako neurriak kentzeko erabagia hartu izanaren errazioa azaltzeko eskatu deutso Foru Diputatuari.

Elena Unzuetak adierazo dauenez, indarrean egon dan urte bietan Aldundiak ez dau neurri horren ganeko ezelango eskaririk jaso, eta “hori dala eta neurriak eragindako ustiapenen benetako beharrei ez eutsiela erantzuten ikusi zan”. Halanda be, argitu dauenez, Foru Aldundia barriro aktibetako prest dago, beharrezkoa bada.

ALDAKETEAK NEKAZARITZAKO ZUZENDARITZAN

Talde Mistoak Iraunkortasunerako Foru Diputatuaren batzorderatzea eskatu dau, orain arteko Nekazaritzako Zuzendari Nagusi izan danaren dimisinoaren eta egindako ordezkapenaren errazioak azaltzeko. Labur izan bada be, Elena Unzuetak Lucia Islaren dimisinoa “errazoi pertsonalengaitik” izan dala azaldu dau, eta handik denpora gitxira kargua Maite Peñacoba egungo Nekazaritzako Zuzendari Nagusiak hartu ebal.

PIXA-OIHALEN BIRZIKLAPENA

Eguneko gai zerrendea, EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeek batera aurkeztutako Arauz Besteko Proposamenaren eztabaidagaz eta ez onartzeagaz bukatu da. Ekimenak eskaria egiten eutsan Foru Aldundiari, “Lurraldean pixa-oihalak eta konpresak batzea sustatzera zuzendutako ekintza zehatzak bultzatu” eta “horreek birzikletako beharrezkoak diran azpiegitura barriak martxan jarri” daizan.

Talde guztiak bat etorri dira birziklapenaren arloan ahalik eta gehien aurreratzeko garrantzian; halanda be, Talde Popularrak, Talde Mistoak, Euskal Sozialistak eta Euzko Abertzaleak taldeak bat etorri dira esatean komenigarria dala Europako hainbat herrialdetan gauzatzen ari diran proba pilotu batzuen emaitzak itxoitea, azpiegitura barriak martxan jarri aurretik. Horrez gain, Gorka Beitia batzordekide jeltzaleak adierazo dauenez, Foru Aldundia lan experimental batean dago murgilduta, oraindino horren emaitzak ezagutzen ez diran arren.

Ekimenak, proposamena aurkeztu daben taldeen aldeko botoak baino ez ditu jaso: Talde Popularrak, Euskal Sozialistak eta Euzko Abertzaleak taldeek kontra botau dabe, eta Talde Mistoa abstenidu egin da.

NOTA DE PRENSA

18/10/18

La Diputada Foral Elena Unzueta detalla las medidas que se pondrán en marcha para afrontar la enfermedad de los pinos que asola a la CAV

La Diputada Foral de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, ha detallado a petición del Grupo Popular y el Grupo Mixto, la batería de medidas que desde la Diputación Foral de Bizkaia tienen previstas para hacer frente a la afección que sufren los pinos de Bizkaia. Estas propuestas se encuentran enmarcadas en la “Estrategia vasca para la recuperación de bosques de coníferas”, un plan diseñado por las tres Diputaciones Forales y por el Gobierno Vasco que se llevará de manera simultánea en los tres Territorios.

Antes de profundizar en dicho plan de actuación, Unzueta ha querido aclarar que ésta se trata de una situación “excepcional” en la que se produce la acción combinada de dos hongos - Banda roja y Banda marrón -, pero que no requiere “la tala masiva de la superficie forestal”. En este sentido la responsable foral ha aclarado que aunque la afección en Bizkaia se encuentra “en torno a un 25%”, ésta no se da de manera homogénea, y que por lo tanto hay superficies más afectadas que otras.

La “Estrategia vasca para la recuperación de bosques de coníferas” contempla tres ámbitos de actuación: el de la generación de conocimiento en torno a la enfermedad y la afección que tiene en la superficie forestal de los tres territorios; el de las medidas para hacer frente a esta enfermedad y el de la recuperación del sector.

En cuanto a la generación de conocimiento, el plan prevé, entre otras, la tarea de clasificar superficies por grado de afección y estudiar el comportamiento de la enfermedad; así como identificar prácticas de éxito en otros lugares. Para hacer frente a la enfermedad, la Diputada Foral ha transmitido a los grupos que actualmente “se está tramitando la autorización especial para el tratamiento aéreo con óxido cuproso”; un trámite “imprescindible” que permitirá realizar este tratamiento que en otros lugares ha dado resultado con hongos similares al que está afectando a los pinos en la CAV.

Esta última medida no ha sido bien acogida por los grupos EH Bildu y Podemos Bizkaia. El juntero de Podemos Bizkaia, Josean Elguezabal, se ha mostrado crítico con la postura de la Diputación Foral de Bizkaia, la cual en su opinión “propone echar gasolina al fuego”. El apoderado ha instado la Diputación a escuchar a los colectivos y a cambiar las políticas forestales, para lo cual ha tenido la mano de su grupo.

En la misma línea, el apoderado de EH Bildu, Mikel Kormenzana, ha hecho hincapié en la importancia de cambiar el modelo forestal. Kormenzana ha manifestado que su grupo ha presentado una propuesta de Norma Foral para la gestión de los montes de Bizkaia.

Por su parte el portavoz del Grupo Mixto, Arturo Aldecoa, ha explicado que el óxido cuproso se trata de “una forma bastante suave de tratamiento que puede tener efecto positivo”. No obstante en su intervención, Aldecoa también ha advertido sobre la

importancia de diversificar las especies plantadas ya que “en los monocultivos las plagas se extienden como el fuego”.

Tras escuchar las explicaciones de la Diputada, el apoderado popular Eduardo Andrés ha resaltado el hecho de que estos hongos “ya venían afectando a los pinos de Bizkaia desde hace bastante tiempo”. “De la prevención habría que haber hablado antes”, ha añadido.

Para la apoderada socialista Isabel Cadaval, una de las cuestiones más importantes de esta cuestión es la coordinación que se está llevando a cabo con el resto de instituciones. La apoderada de Nacionalistas Vascos, aun reconociendo que ésta se trata de una situación “que nos preocupa a todos”, ha recordado que “esta preocupación no puede hacer que caigamos en el alarmismo y en la extradimensión”.

AYUDAS FORESTALES

En la misma sesión, el grupo EH Bildu le ha solicitado a la Diputada Foral que explique la razón por la que se ha tomado la decisión de eliminar la medida de implantación de sistemas agroforestales del Decreto de régimen de medidas de fomento para la conservación, mejora y desarrollo de los bosque.

Elena Unzueta ha manifestado que durante los dos años que estuvo vigente, la Diputación no recibió ninguna solicitud para acogerse a la citada medida, “por lo que se vio que la misma no respondía a las necesidades reales de las explotaciones afectadas por la medida”. No obstante, ha aclarado que la Diputación Foral está a dispuesta a activarla de nuevo si hubiera necesidad.

CAMBIO EN LA DIRECCIÓN DE AGRICULTURA

El Grupo Mixto ha solicitado también la presencia de la Diputada Foral de Sostenibilidad para que explicara las razones por las que se ha producido la dimisión y sustitución en el cargo de la hasta ahora Directora General de Agricultura. Brevemente, Elena Unzueta ha manifestado que la dimisión de Lucia Isla se ha producido por “motivos personales” y que el cargo fue rápidamente ocupado por la actual Directora General de Agricultura, Maite Peñacoba.

RECICLAJE DE PAÑALES

El orden del día se ha completado con el debate y posterior rechazo de una Proposición No Norma presentada conjuntamente por EH Bildu y Podemos Bizkaia. La iniciativa insta a la Diputación Foral a “impulsar acciones concretas para promover en el Territorio la recogida de pañales y compresas” y a “poner en marcha las nuevas infraestructuras necesarias para reciclarlos”.

Todos los grupos han coincidido en la importancia de avanzar en el ámbito del reciclaje; no obstante tanto Grupo Popular, como Grupo Mixto, Socialistas Vascos y Nacionalistas Vascos han manifestado que es conveniente esperar los resultados de las diversas pruebas piloto que se están llevando a cabo en países europeos, antes de poner en marcha nuevas infraestructuras. Asimismo, el apoderado nacionalista Gorka Beitia ha declarado que la Diputación Foral ya se encuentra inmerso en un trabajo experimental del que aún no se conocen los resultados.

La iniciativa únicamente ha contado con el apoyo de los proponentes; Grupo Popular, Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han votado en contra, y Grupo Mixto ha optado por la abstención.